

## Xedapen Orokorrak

### JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

#### Zk-1344

3/1998 LEGEA, otsailaren 27koa, Euskal Herriko ingurugiroa babesteko lege orokorra.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinarazaten zaie Euskadiko herritar guztiei:

OTSAILAREN 27KO 3/1998 LEGEA, EUSKAL  
HERRIKO INGURUGIROA BABESTEKO LEGE  
OROKORRA.

#### ZIOEN ADIERAZPENA

Ingurugiro-politika autonomikoaren adierazpen juridiko positibo gisa eta Autonomi Estatutuan Euskal Autonomia Erkidegoari onartutako eskumenen garapen moduan, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra ingurugiroa ulertzeko guztien borondatea zehazteko premiatik sortu da, ingurugiro-politikaren helburu komunak hierarkizatu, eskumenak antolatu eta horretarako prozedura eta baliabide egokiak diseinatuko direlarik. Azken finean, ingurugiro-baliabideen babes-erregimena finkatzea, ingurugiroan eragina duten jarduerentzat Administrazioaren parte-hartzea arautzea (zigor-erregimena barne) eta epe labur, ertain eta luzera bizi garen gizartean ingurugiro-babesarentzat eredu bideragarri berriak sustatzea nahi da.

Euskal gizartean ingurugiroaz sortzen ari den sentiberatasunak, presazkoa du arau-esparru egonkor, argi eta bideragarria edukitzea. Derrigorrez konplexua izango den arren, agente publiko eta pribatu guztiak erabat errespetatuz, era eraginkorrean etorkizuna izango duen etorkizuna eraikitzeke aukera eman behar dio.

Horregatik lege honek gizarte eta gizabanakoen portaeraren norabide eta gidari izan dadin ingurugiroa ulertzeko modu berriaren arau-oinarriak ezartzeaz gain, euskal gizartea eta ingurugiroa zehazki larrizten duten arazoak gaur egun tratatzeko ere balio izatea nahi da.

Horiek horrela, legeak bere lege-babesa ingurugiro eta ekologiari buruz Estatuko lege-garapenerako eta oinarritzko legeria exekutatzeko Autonomi Estatutuak 11.1.a) atalean ezartzen duen eskumenean du. Lege honek esparru egonkorra ezartzen du, eta horren barruan, bai agente pribatu desberdinen jarduerak

## Disposiciones Generales

### PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

#### Nº-1344

LEY 3/1998, de 27 de febrero, General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco.

Se hace saber a todos/as los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

LEY 3/1998, DE 27 DE FEBRERO, GENERAL DE  
PROTECCIÓN DEL MEDIO AMBIENTE DEL PAÍS  
VASCO.

#### EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La Ley General de Protección del Medio Ambiente del País Vasco, como expresión jurídico positiva de la política ambiental autonómica, en desarrollo de las competencias reconocidas a la Comunidad Autónoma vasca en virtud de su Estatuto de Autonomía, nace de la necesidad de concretar una voluntad colectiva de entender el medio ambiente, jerarquizando objetivos comunes de la política ambiental, articulando competencias y diseñando, a tal fin, procedimientos e instrumentos adecuados. Se trata, en definitiva, de fijar el régimen de protección de los recursos ambientales, de regular la intervención administrativa respecto de las actividades con incidencia en el medio ambiente, incluyendo un régimen sancionador, y de propiciar nuevas fórmulas viables para abordar a corto, medio y largo plazo la protección ambiental en la sociedad en la que vivimos.

La emergente sensibilidad ambiental de la sociedad vasca precisa con urgencia de un marco normativo estable, nítido y viable que, aunque forzosamente complejo, le permita, con el máximo respeto hacia todos los agentes públicos y privados, construir de forma eficiente un futuro con futuro.

Es por esto por lo que la presente ley pretende sentar las bases normativas no sólo de la nueva percepción ambiental, de forma que sirva de orientación y guía de los comportamientos sociales e individuales, sino también del tratamiento actual de los problemas que acucian en concreto a la sociedad vasca y al medio ambiente.

Con todo ello, la ley, que encuentra su amparo legal en la competencia establecida en el artículo 11.1.a) del Estatuto de Autonomía para el desarrollo legislativo y ejecución de la legislación básica del Estado en materia de medio ambiente y ecología, aporta un marco estable dentro del cual tanto la actividad

eta bai bere indarraldiko leku eta denboraren esparruan parte hartzen duten botere exekutibo desberdinen politikak beren lekua dute eta legean markatutako helburuak lortzen lagun dezakete eta lagundu egin behar dute.

Legea ordenamendu juridiko bateratzaileen sisteman txertatzen da, eta Europako zuzenbidea, nazioarteko hitzarmenak eta beren transposizioak azaltzeaz gain, Estatuko oinarritzko legeria errespetatu behar du, eta, aldi berean, ingurugiro aldetik garrantzitsuak diren beste gai batzuei buruzko arauak lotu behar zaie zeharka.

Horrela, legea, lehenengo eta behin, Europako araudietara lotu behar da, ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazioa, kutsaduraren kontrol integratua, hondakin-kudeaketa, airearen kalitatearen babesa, ekoikuskapen-sistemak eta ingurugiro-kudeaketa, eta ingurugiroari buruzko informazioa izateko esku-bidea, arautzen dituzten araudietara hain zuzen.

Eta, bigarren, Estatuan indarrean dauden araudietara lotu behar da legea, ingurugiroaren gaineko eraginari, hondakin toxiko eta arriskutsuen kudeaketa-ri, sailkatutako jarduerari, biodibertsitateari eta itsas-bazterren eta lehorreko uren babesari dagokienez.

Legearen oinarriak administrazio publikoen arteko lankidetzeta eta elkarlanerako printzipio orokorrak dira, batetik, eta herritarrek, pertsona fisiko zein juridiko gisa, herritar gisa eta agente sozioekonomiko gisa parte hartzeko printzipioak, bestetik, ingurugiroari buruzko informazioa zein komunikazioa eta benetako erantzule izatea bilatuko delarik. Izan ere, legeak ingurugiroa eskubideak eta betebeharrak sortzen dituen gizarte-ondasun gisa hartzen du. Era jasagarrian erabili behar da, Europako Batasunak ingurugiro eta garapen jasagarriaz duen Bosgarren Ekintza Programako eta Batasunerako Tratatuan xedatutako helburuak definitzeko eta euskal ingurugiro-politikan integratzeko ahaleginetan.

Beraz, legea era berean berariazko zuhertasun- eta prebentzio-ekintzetako printzipioetan oinarritzen da. Ingurugiroko kalteak saihestu nahi dira, eta horiek sortzen direnean, kalteak konpontzeko (sorburuan konpontzea lehenesten da) printzipioa eta poluitzen duenak ordaindu egingo duela zein kalte egiten duenak erantzun egingo duela dioen printzipioa erabiltzen dira. Formulazio jakin honen helburua, onartutako poluzio-maila duen edozein jardueraren ingurugiro-kostuak barneratzeko obligazioa eta ingurugiroari eragindako kalteei sortu dituenak erantzuteko duen obligazioa bereiztea da. Hori guztia kasu bakoitzean aplikatu daitekeen zigor-erregimenaren kalterik gabe. Atariko idazpuruak orain arte hemen adierazi diren eta gero hurrengo ataletan garatzen diren alderdiak jasotzen ditu.

Lehen idazpuruak, xedapen orokorrekoei buruzkoak, ingurugiroa herritarrek erabiltzeko eta gozatzeko, ingurugiroari buruzko informazioa izateko eta

de los distintos agentes privados como las políticas de los distintos ejecutivos que concurren en el ámbito espacial y temporal de su vigencia tienen cabida y pueden y deben contribuir a los objetivos que en ella se marcan.

La ley se incardina en un sistema de ordenamientos jurídicos confluyentes, de forma que, además de plasmar el derecho comunitario, los convenios internacionales y sus transposiciones, ha de respetar la legislación básica estatal, a la vez que transversalmente ha de articularse con las regulaciones propias de otras materias con trascendencia medioambiental.

De este modo la ley ha de articularse en primer lugar con las normativas europeas reguladoras de la evaluación de impacto ambiental, control integrado de la contaminación, gestión de residuos, protección de calidad del aire, sistemas de ecoauditorías y gestión ambiental y derecho de acceso a la información en materia de medio ambiente.

En segundo lugar la ley se articula con la regulación estatal vigente en materia de impacto ambiental, gestión de residuos tóxicos y peligrosos, actividades clasificadas, biodiversidad, y protección de la costa y las aguas litorales.

La ley se inspira en principios generales de cooperación y colaboración entre las Administraciones públicas y de participación de los ciudadanos y ciudadanas, tanto personas físicas como jurídicas, fomentando la información y comunicación, a la búsqueda de una efectiva corresponsabilidad, ya que el medio ambiente se concibe en la ley como un bien social generador de derechos y obligaciones, que ha de ser usado de una forma sostenible, en un esfuerzo de integración tanto en la definición como en la realización de la política ambiental vasca de los objetivos del Quinto Programa de Acción en Materia de Medio Ambiente y Desarrollo Sostenible de la Unión Europea y de lo dispuesto en el Tratado de la Unión.

De esta manera, la ley se inspira, a su vez, en principios específicos de cautela y acción preventiva, tratando de evitar daños ambientales, y, cuando éstos se produzcan, en los principios de corrección de los daños, preferentemente en la fuente, y en el principio de que quien contamina paga y quien daña responde. Esta concreta formulación persigue definir y diferenciar la obligación de internalizar los costes ambientales propios de cualquier actividad que suponga algún nivel de contaminación tolerada de la obligación de responder de los daños ambientales que se puedan generar por parte de quien los ha causado; todo ello con independencia del régimen sancionador que en su caso pueda concurrir. El Título Preliminar contempla sintéticamente los aspectos hasta aquí señalados, que luego son desarrollados en el articulado posterior.

El Título Primero, de disposiciones generales, aborda la concreción del medio ambiente como derecho de los ciudadanos y ciudadanas al uso y disfrute,

parte hartzeko eskubide gisa hartzen du. Administrazio publikoek ingurugiro osasuntsua izateko eskubidea erabili ahal izateko ingurugiro-politikak sustatzeko duten betebeharrak eratzten du. Betebehar hori gauzatzeko akzio publikorako eskubidea aitortzen du eta era berean gai honetan portaerak administrazioaren esku-hartzearen menpe (baita zigortzekoaren menpe ere) uzten ditu.

Halaber, ingurugiro-politikarako oinarriak ezartzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko, lurralde historikoetako foru-organoetako eta udaletako erakunde komunak eskumenera edukia kokatu eta definitu egiten delarik. Administrazioen arteko koordinazioa eta elkarlanerako tresnak aurreikusten ditu eta legegintzaldirako baino epe luzeagorako asmotan ingurugiroarentzako esparru-programa lantzea aztertzen du. Euskal Herriko Ingurugiro Batzordea eratzten da, Euskal Autonomia Erkidegoan ingurugiro arloan diharduten administrazio desberdinen harreman, parte-hartze eta koordinazioarako organo gisa. Ingurugiroarako Aholku Kontseilua sortzen da, gizarte eta ekonomiako agenteen parte hartzeko eta aholkuak jasotzeko organo gisa. Ingurugiroari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea arautu eta gai honi buruz dagoen legeria osatzen du.

Azkenik, Administrazioaren eta parte hartutako agenteen arteko ingurugiro-akordio bidez prozedura hitzartuta nola amaitu arautzen da, Europako arteztarauak betetzeko ingurugiro-hitzarmenerako bide zehatzei leku egiten zaielarik.

Bigarren idazpuruak ingurugiro-baliabideen babesaz dihardu eta besteak beste oinarritzat Rio de Janeiro-ko Biodibertsitateari buruzko Hitzarmena eta klima-aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioa hartzen ditu. Era berean, Europako Batasunaren arauetan xedatutakoa aplikatzen da eta horretarako administrazio publikoek biodibertsitatea eta urak babesteko jardueraren oinarriak ezartzen dira. Babes horretan, itsasbazterra, lurzorua eta atmosfera sartzen dira, zaraten eta dardaren kontrako borroka ere barne hartzen delarik.

Hirugarren idazpuruan, ingurugiroan eragina duten jardueren antolamendua arautzen da. 96/61/CE Arteztaraua betetzeko, poluzioaren kontrol integratuaren printzipioa sartzen du eta gero arauen oinarriak ezartzen dira. Arau horietan arteztarauak eragindako jarduerentzat baimena emateko baldintzei buruzko ikusmolde integratu eta eraginkorra bertutuko da.

Ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazioari eskainitako atalburuan, legearen I. eranskinean zehazten diren proiektu eta planak burututa ingurugiroan izan ditzaketan eraginak balioesteko sistema diseinatzen da. Horretarako planen ingurugiroaren gaineko eraginak elkarrekin ebaluatzeko prozedura ezartzen da. Horren bidez egon daitezkeen al-

a la información ambiental y a la participación, configurando la obligación de que las Administraciones públicas promuevan políticas ambientales para garantizar el ejercicio del derecho a un medio ambiente saludable, reconociendo el derecho a la acción pública para exigir su cumplimiento, a la vez que somete las conductas a la intervención administrativa, incluso sancionadora, en esta materia.

Así mismo, establece las bases de la política ambiental, enmarcando y definiendo el contenido de las competencias de las instituciones comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco, los órganos forales de los territorios históricos y los municipios. Prevé los instrumentos de coordinación y cooperación entre Administraciones y contempla la elaboración de un programa marco ambiental con vocación temporal más amplia que las propias legislaturas. Se configura a la Comisión Ambiental del País Vasco como el órgano de relación, participación y coordinación de las distintas Administraciones que en materia de medio ambiente actúan en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Se crea el Consejo Asesor de Medio Ambiente como órgano consultivo y de participación de los agentes sociales y económicos, regulando el derecho de acceso a la información de medio ambiente, completando la regulación vigente en esta materia.

Por último se regula la terminación convencional del procedimiento a través de acuerdos ambientales entre la Administración y los agentes implicados, dando entrada a concretas vías de concertación ambiental en cumplimiento de directrices comunitarias.

El Título Segundo aborda la protección de los recursos ambientales inspirándose, entre otros, en el Convenio sobre Biodiversidad de Río de Janeiro y en la Convención Marco de las Naciones Unidas sobre el cambio climático, aplicando, asimismo, lo dispuesto en la normativa comunitaria y estableciendo a tal efecto los principios que debe informar la actuación de las Administraciones públicas en relación con la protección de la biodiversidad, las aguas, incluyendo el litoral, el suelo y el medio atmosférico, abarcando la lucha contra el ruido y las vibraciones.

El Título Tercero regula la ordenación de las actividades con incidencia en el medio ambiente, introduciendo el principio de control integrado de la contaminación en cumplimiento de la Directiva 96/61/CE, y estableciendo los pilares de la futura regulación que garantizará un enfoque integrado y efectivo de las condiciones de autorización de las actividades afectadas por aquella norma.

El capítulo dedicado a la evaluación de impacto ambiental diseña un sistema que permitirá estimar los efectos que sobre el medio ambiente puedan derivarse de la ejecución de los planes y proyectos que se relacionan en el Anexo I de la ley, estableciéndose a tal efecto un procedimiento de evaluación conjunta de impacto ambiental de planes a través del cual se

ternatibak egoki ebaluatuko dira eta bertako proiektuek batera eta metatuta ingurugiroan izan dezaketen eragina balioetsiko da. Proiektuek banaka izan dezaketen ingurugiroaren gaineko eragina ebaluatze-ko prozedura ere ezartzen da eta ebaluazio sinplifikatuko prozedura ere bai, ingurunean munta eta eragin txikiagoa dutelako hain prozedura konplexua behar ez denerako.

II. eranskinean azaltzen den sailkatutako jardueren erregimenari dagokionez, lizentziak emateko prozedura eguneratu egiten da. Berrikusteko garaia heldu da, baina gogoan izan behar da kontrol integratuaz aterako diren arauak emango diotela gaina baimen-sistemari behin betiko. Industriak eta jarduerak ezartzeko aurretiazko betebeharrak izango da, Europako arteztarauaren helburu eta oinarriak gauzatzeko. Sailkatutako jardueren erregimenean aipamen berezia merezi dute araututako jarduerak ahalik eta ongien fiskalizatzeko sartu diren mekanismoek.

Hondakinei buruzko politikaren oinarriak gai honi buruzko atalburuan biltzen dira. Lehenetsuna ematen zaie hondakinen prebentzioari eta produkzio-ko minimizazioari, berriz erabiltzeari eta balioztatzeari, eta, azkenean, balioztatzea ezinezkoa denean hondakinak behar bezala deuseztatzea tratatzen da.

Oinarri horiek aplikatuta, administrazio publikoek hondakin arriskutsu, hirietako hondakin solido eta gainerako hondakin-motei buruz dituzten erantzukizunak eta jarduerak definitzen dira.

Poluitutako lurzoruetan parte hartzeari dagokionez, eragindako lurzoruentzat kaltegarriak diren aldaketak ezagutzeko ekintzak aipatzen dira. Bertako poluzio-mailaren arabera erabilpenak mugatu egiten dira, oinarri gisa lurzoruaren poluzioa lurzoruaren zati dela eta lurzoruaren jabearena dela hartzen delarik. Era berean, poluitutako lurzoruentzat prebentzio, defentsa eta berreskurapenerako neurriak ere aipatzen dira.

Laugarren idazpuruan, ingurugiro-politikarako baliabideak arautzen dira. Baliabide publikoak eta borondatezko baliabideak bereizten dira, lehen aipatu diren erantzukizuneko eta parte hartzeko printzipioen arabera.

Plangintzarako eta antolamendurako baliabide klasikoenen ondoan bide berriak markatzen dira, prebentzio, babes eta berreskuratzeko aukera modernoenen ildotik erantzukizun-sistemak razionalizatzeko.

Bestetik, ingurugiro-politikaren kudeaketa ekonomikoa legean baliabide ekonomiko-finantzarioen eta zerga-baliabideen bitartez gauzatzen da. Berariazko fondoak sortzeko aukera emanda, sustapen fiskala

evaluarán adecuadamente las posibles alternativas y se estimará la repercusión ambiental acumulada y conjunta de los proyectos en ellos contemplados, un procedimiento de evaluación individualizada de impacto ambiental de proyectos y un procedimiento de evaluación simplificada para aquellas actuaciones en las que por su menor envergadura e incidencia en el entorno se requiera de un procedimiento de menor complejidad.

Respecto al régimen de actividades clasificadas, cuya relación se contempla en el Anexo II, se actualiza el procedimiento de concesión de licencias, procedimiento que con el transcurso del tiempo demandaba su revisión, teniendo presente que será la futura regulación sobre control integrado quien culmine definitivamente el sistema de autorización, como requisito previo para la implantación de industrias y actividades haciendo efectivos los principios y objetivos de la directiva comunitaria. Especial mención merece, dentro del régimen de actividades clasificadas, la introducción de mecanismos encaminados a una óptima fiscalización de las actividades reguladas.

Los principios inspiradores de la política de residuos se recogen en el capítulo dedicado a esta materia, priorizándose la prevención y minimización en la producción de residuos, la reutilización y valorización, y contemplándose, en último término, la eliminación adecuada de los mismos cuando tal valorización no sea posible.

En aplicación de tales principios se definen las acciones y responsabilidades de las Administraciones públicas en materia de residuos peligrosos, sólidos urbanos y restantes tipologías de residuos.

La intervención en materia de suelos contaminados contempla las acciones dirigidas al conocimiento de las alteraciones perjudiciales de los suelos afectados, con limitación de usos en función de los niveles de contaminación de los mismos, partiendo de la base de que la contaminación de un suelo forma parte del propio suelo y de la propiedad del mismo. Contempla, asimismo, la adopción de medidas de prevención, defensa y recuperación de suelos contaminados.

El Título Cuarto regula los instrumentos de política ambiental, distinguiendo entre instrumentos públicos e instrumentos voluntarios, de forma coherente a los principios de corresponsabilidad y participación expresados anteriormente.

Junto con los instrumentos más clásicos de planificación y ordenación, se avanzan nuevas vías que pretenden racionalizar los sistemas de responsabilidad en relación a las más modernas posibilidades de prevención, protección y restauración.

Por otra parte, la gestión económica de la política medioambiental está contemplada en la ley a través de diversos instrumentos económico-financieros y tributarios que, partiendo de la posibilidad de crear

eta prezio publiko eta tasen politika egokia proposatzen du, merkatu-sisteman «poluitzen duenak ordaintzen du» printzipioa behar bezala bideratzeko. Aipamen berezia egitea merezi du arrisku eta erantzukizunei dagozkien segurtatzeko mekanismoen inplementazioak. Segurtatzeko produktu egokiak sortzeko aukera egiazkoagoak ematen dira eta administratiboki erantzukizun zibilaren kopuru maximoak ezartzen dira, arrisku-sortzaileek prebentziorako neurriak hartzearen arabera.

Era berean, ingurugiroa zaindu eta kudeatzeko berrondatezko baliabideak adierazten dira. Legeak sustatu eta aintzakotzat hartu nahi ditu, eragin jakin batzuk onartuta. Ingurugiro-ikuskapenak eta ekoetiketa, berriz, prozedura administratiboetan sartzeko ingurugiro-kudeaketarako benetako baliabide gisa hartzen dira eta, aldi berean, ingurugiroari buruzko informazioa jasotzeko eta ingurugiroaz gozatzeko eskubideen tresna eraginkor ere badira. Gaur egun hori informazioa bereizten duten eta erabiltzaileek erraz eskura ditzaketan sistemen bidez baino ez da posible, nahiz eta produktore eta administrazioentzat lantzea eta kontrolatzea konplexua izan.

Ingurugiro-hezkuntzak diseinatu diren baliabideen osagarri izan behar du, garapen jasangarri onena lortzeko gizarteko sektore guztiek ingurugiroaz duten ezagutza eta kultura handiagoak izan daitezen. Ingurugiro-hezkuntza, ikerketa eta sentiberatasunari buruzko ekintza-plana martxan jartzeko obligazioa ezartzen da. Hezkuntza-mailako informazioa eta parte-hartzea eta asoziazionismoa bultzatzea ere giltzarri dira ingurugiro-hezkuntza ezartzeko.

Bosgarren idazpuruak, ingurugiro-diziplinari buruzkoak, ingurugiro-erantzukizuna eta zigor-erregimena konbinatuta eta elkarren menpetasunean arautzen ditu.

Besteak beste, erantzukizun pertsonal edo solidarioaren, aldatutako ingurunea berreskuratzearen eta exekuzio subsidiarioaren printzipioak biltzen dira, eta, aldi berean, kaltea murrizteko kautelazko neurriak hartzeko aukera ematen da (ustezko arau-hausleen eskubideen erabateko errespetuaren kalterik gabe), zuzenbide penala gidatzen duten printzipioak aplikatuz, zeina zigor-erregimenerako ordezkio gisa aplikatzeko baita.

Administrazioei ematen zaizkien ikuskapen eta kontrolerako mekanismoak sendotu egiten dira, legeak ikuskariak agintaritzaren agente gisa (kasuari dagozkion eskubideak dituztelarik) onartu egiten dituelako.

fondos específicos, propone la incentivación fiscal y una correcta política de precios públicos y tasas que permita articular adecuadamente el principio de que «quien contamina paga» en el sistema de mercado. Especial atención merece el tratamiento otorgado a la implementación de los mecanismos aseguradores en relación a los riesgos y responsabilidades, aportando posibilidades más reales de que surjan productos aseguradores adecuados, con la fijación administrativa de cuantías máximas de responsabilidad civil, en función de la adopción de medidas preventivas por parte de los generadores de riesgo.

Se recogen, igualmente, los instrumentos de tutela y gestión ambiental, de carácter voluntario, a los que la ley quiere impulsar y dar carta de naturaleza a través del reconocimiento de determinados efectos. Las auditorías ambientales y la ecoetiqueta se conciben como auténticos instrumentos de gestión ambiental a incorporar en los procedimientos administrativos, a la vez que como eficaces vehiculadores de los derechos a la información ambiental y al disfrute de un medio ambiente saludable sólo posible, hoy, mediante sistemas discriminatorios de la información, de fácil acceso para los usuarios aunque de compleja elaboración y control para los productores y las administraciones.

La educación ambiental ha de ser el complemento de los instrumentos diseñados, de forma que todos los sectores sociales crezcan en conocimiento y cultura ambiental, para conseguir el mejor desarrollo sostenible. Se establece la obligación de poner en funcionamiento un plan de actuación en materia de educación, investigación y sensibilización ambiental. Información y participación en clave educativa, y fomento del asociacionismo son, a su vez, claves para la efectiva implantación de la educación ambiental.

El Título Quinto, de disciplina ambiental, regula la responsabilidad ambiental y el régimen sancionador de forma combinada e interdependiente.

Se recogen los principios de responsabilidad personal o solidaria, restitución del medio alterado y ejecución subsidiaria, entre otros, a la vez que se posibilita la adopción de medidas cautelares que tiendan a evitar o reducir el daño, sin perjuicio del más absoluto respeto de los derechos de los presuntos infractores, en aplicación de los principios inspiradores del derecho penal, que es de aplicación supletoria para el régimen sancionador.

Los mecanismos de inspección y control atribuidos a las Administraciones se refuerzan con el reconocimiento desde la ley de la figura de los inspectores como agentes de la autoridad con las pertinentes prerrogativas al caso.

Arau-haustetarako erregimenak oso arau-hauste larrietatik arinetarainoko ekintzak sailkatzen ditu, eta zigorrak ere ezartzen dira, arau-hausteen motei dagozkien maila desberdinen berri emanez.

Oro har arautzen da zigortzeko prozedura, instrukzio-fasea eta zigortze-fasea bereizten direlarik.

#### ATARIKO IDAZPURUA LEGEAREN XEDEA

##### 1. atala. – Legearen xedea.

1.– Lege honen xedea ingurugiroa babesteko arau-markoa ezartzea da, pertsona fisikoen eta juridikoen eskubide eta betebeharrak zehazten direlarik.

2.– Aireak, urak, lurzoruak, paisajeak, florak eta faunak, beren parametro eta elkarrekintza egokiekin, giza bizia garatzen deneko ingurugiroa osatzen dute. Era jasangarrian erabiliko da.

3.– Ingurugiroa gizarte-ondarea da, gizabana-koengan zein taldeengan eskubideak eta betebeharrak sortzen dituena.

##### 2. atala. – Helburuak.

Lege honen helburuak honako hauek dira:

a) Etorkizuneko belaunaldiak beren premiak asetzeko ahalmena arriskuan jarri gabe, oraingo premiak betetzeko garapen jasangarria bermatzea.

b) Biodibertsitatea mantentzea, bere osagaiak ingurugiro-baliabideak erabilita sortzen diren irabaziak era zuzen eta bidezkoan banatzeko era jasangarrian erabiltzen direla zaindus.

c) Edozein ingurunetan bizi direla ere, euskal herritarren bizi-kalitatea hobetzea.

d) Ingurugiroa babestea, kalteak prebenitzea eta kaltetu den lekuan leheneratzea.

e) Ingurugiroko eraginak minimizatzea, jardueren ondorioak aurrez ebaluatuz eta zuzentzeko neurriak ezarriz.

f) Ingurugiro-ezagutzako arlo guztietan ikerketa sustatzea.

g) Hezkuntzako maila guztietan ingurugiro-hezkuntza bultzatzea eta ingurugiroa babesteko herritarrek kontzientziaztea.

h) Ingurugiro-kontsiderazioak era eraginkorren hiri-plangintzan eta ondare historikoaren babeste-lanean sartuta, hiri-ingurugiroaren jasangarritasuna bermatzea.

El régimen de infracciones recoge una tipificación de los hechos constitutivos de infracción de muy graves a leves, y así mismo se fijan las sanciones, con las escalas propias para cada tipo de infracción.

Finalmente se regula con carácter general el procedimiento sancionador con la adecuada separación entre fase instructora y sancionadora.

#### TÍTULO PRELIMINAR OBJETO DE LA LEY

##### Artículo 1. – Objeto de la ley.

1.– Es objeto de la presente ley establecer el marco normativo de protección del medio ambiente, determinando los derechos y deberes de las personas físicas y jurídicas.

2.– El aire, el agua, el suelo, el paisaje, la flora y la fauna, con sus parámetros e interrelaciones adecuadas, constituyen el medio ambiente en el que se desarrolla la vida humana. Su uso se hará de forma sostenible.

3.– El medio ambiente es un bien social generador de derechos y obligaciones individuales y colectivos.

##### Artículo 2. – Fines.

Son fines de la presente ley:

a) Garantizar un desarrollo sostenible que satisfaga las necesidades del presente sin poner en peligro la capacidad de las generaciones futuras para satisfacer sus propias necesidades.

b) Conservar la biodiversidad, velando por la utilización sostenible de sus componentes, a fin de obtener una participación justa y equitativa en los beneficios derivados de la utilización de los recursos ambientales.

c) Mejorar la calidad de vida de la ciudadanía, cualquiera que sea el medio ambiente en el que habite.

d) Proteger el medio ambiente, prevenir su deterioro y restaurarlo donde haya sido dañado.

e) Minimizar los impactos ambientales, evaluando previamente las consecuencias del ejercicio de las actividades, estableciendo las medidas correctoras.

f) Fomentar la investigación en todos los campos del conocimiento ambiental.

g) Promocionar la educación ambiental en todos los niveles educativos, así como la concienciación ciudadana en la protección del medio ambiente.

h) Garantizar la sostenibilidad del medio ambiente urbano a través de la integración efectiva de las consideraciones medioambientales en la planificación urbana y la protección del patrimonio histórico.

i) Landa-ingurugiroaren jasangarritasuna bermatzea nekazaritzaren eta ingurugiroaren arteko oreka zainduz eta bultzatuz

## I. IDAZPURUA XEDAPEN OROKORRAK

### I. ATALBURUA PERTSONEN ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK

#### 3. atala.- Eskubideak.

1.- Pertsona orok du ingurugiro osasuntsua erabili eta horretaz gozatzeko eskubidea. Eskubide honen erabiltzea bermatzeko administrazio publikoei dago-kie ingurugiro-politika egokiak sustatzea.

2.- Pertsona orok du ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera ingurugiroaz informazioa eskuratzeko eskubidea.

3.- Pertsona orok du, zuzenean edo ingurugiroaren aldeko taldeen bidez, arauk ezartzen dutenaren arabera ingurugiroa babesteko erabakietan parte hartzeko eskubidea.

4.- Legean aurreikusitakoa betetzea exigitzeko akzioa publikoa izango da, bai bide administratiboan eta bai jurisdikzioan.

#### 4. atala.- Betebeharrak.

1.- Pertsona fisiko zein juridiko orok ingurugiroa zaintzeko betebeharra du.

2.- Administrazio publikoek betebeharrak zehatzak ezarri ahal izango dituzte aurreko azpiatalean azaldutakoa egoki betetzearren.

3.- Ingurugiro-legeria hausten dutenak legeak ezartzen duen eran zigortu egingo dira eta egindako kaltea konpontzera derrigortuko dira.

## II. ATALBURUA EAE-KO INGURUGIRO POLITIKA

#### 5. atala.- Ingurugiro politika.

1.- Administrazio publikoen erantzukizun den ingurugiro-politika, ingurugiroa babesteko eta lehenertzeko legezko, arauzko, exekuziozko eta kudeaketazko neurriez osaturik egongo da, bertako definizio eta garapenean erantzukizundun eta partaide diren ekonomiako eta gizarteko agenteen premiazko parte-hartzearen kalterik gabe, ingurugiroak duen gizarte-funtzioa kontuan harturik.

2.- EAeko ingurugiro-politika baliabideen aprobetxamendu jasangarrian, kautelazko eta prebentziozko ekintzetan, kalteak konpontzean (sorburuan konpontzea lehenetsiko da) eta poluitzen duenak ordaindu behar duela eta kaltetzen duenak erantzun

i) Garantizar la sostenibilidad del medio rural, preservando e impulsando el equilibrio entre la actividad agraria y el medio ambiente.

## TÍTULO PRIMERO DISPOSICIONES GENERALES

### CAPÍTULO I DERECHOS Y DEBERES DE LAS PERSONAS

#### Artículo 3.- Derechos.

1.- Todas las personas tienen derecho al uso y disfrute de un medio ambiente saludable, correspondiendo a las Administraciones públicas promover políticas ambientalmente adecuadas para garantizar el ejercicio de este derecho.

2.- Todas las personas tienen el derecho a la información ambiental, de conformidad con lo establecido en el ordenamiento jurídico.

3.- Todas las personas tienen el derecho a participar, directamente o a través de asociaciones de defensa ambiental, en los términos que establezcan las normas, en las decisiones de protección ambiental.

4.- Será pública la acción para exigir el cumplimiento de lo previsto en esta ley, tanto en vía administrativa como jurisdiccional.

#### Artículo 4.- Deberes.

1.- Todas las personas físicas o jurídicas tienen el deber de conservar el medio ambiente.

2.- Las Administraciones públicas podrán imponer obligaciones concretas para el adecuado cumplimiento de lo expuesto en el apartado anterior.

3.- Aquellas personas que vulneren la legislación ambiental serán sancionadas y obligadas a reparar el daño causado, en la forma en que se determine legalmente.

## CAPÍTULO II LA POLÍTICA AMBIENTAL DEL PAÍS VASCO

#### Artículo 5.- Política ambiental.

1.- La política ambiental, responsabilidad de las Administraciones públicas, estará constituida por las medidas legislativas, reglamentarias, ejecutivas y de gestión referidas a la protección y restauración del medio ambiente, sin perjuicio de la necesaria participación, en su definición y desarrollo, de los agentes sociales y económicos, corresponsables y copartícipes de la misma, dada la función social del medio ambiente.

2.- La política ambiental en el País Vasco estará basada en los principios de aprovechamiento sostenible de los recursos, de cautela y acción preventiva, en el principio de corrección de los daños, preferentemente en la fuente, y en el principio de que quien

behar duela dioen printzipioan oinarritua izango da, ingurugiro-babesa sektoreko politika guztiak definitu eta exekutatzean integratuko delarik.

3.- Ingurugiro-politikak antolamendu egonkor eta iraunkorra sortzea bultzatuko du, ekintza publikoari eta ekimen pribatuari bermea, segurtasuna eta eraginkortasuna eman diezaien.

**6. atala.** - Ingurugiroari buruzko Esparru Programa eta txostena.

1.- Euskal Herriko ingurugiro-politika ingurugiroari buruzko esparru-programa batean azalduko da. Programa hori Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoak egingo du Euskal Herriko Ingurugiro Batzordean ordezkotza duten administrazio publikoekin lankidetzan.

Ingurugiroari buruzko esparru-programa horren iraupena lau urtekoa izango da, esandako Batzordeak txostena egin ondoren Jaurlaritzak onetsiko du eta ondoren Eusko Legebiltzarrari bidaliko zaio. Esparru-programa hori berariazko plan eta programen bidez garatu ahal izango da.

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak hiru urtez behin txostena argitaratuko du Euskal Herriko ingurugiroaren egoeraren berri emanez.

**7. atala.** - Ingurugiro arloko eskumenak erabiltzea.

1.- Erakunde komunei dagokie, lege honetan ezarritako esparruaren barnean ingurugiro-arauak presatu eta onartzea eta ingurugiroaz zein ekologiaz Estatuko oinarritzko legeria garatzea eta exekutatzea, Euskal Herriko Autonomi Estatutuan aurreikusita-koaren arabera.

Era berean, erakunde komunen eskumena da Europako Batasuneko araudiak zuzenean aplikatzeko behar diren neurriak hartzea eta arteztaruetan zein Europako gainerako aruetan ezarritako obligazioak betearaztea.

2.- Lurralde historikoetako foru-organoei dagokie, bestalde, Autonomia-Elkarte Osorako Erakundeen eta bertako Kondaira-Lurraldeetako Foruzko Ihardutze-Erakundeen Arteko Harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legean aitortutako eskumenak, eta lege honek eta ingurugiroari buruzko gainerako arau autonomikoek adierazitakoak erabiltzea.

3.- Udalei dagokie lege honek, toki-jaurbiderako legeriak eta ingurugiroko sektoreko legeriak aitortutako eskumenak erabiltzea.

**8. atala.** - Ingurugiro-politikaren koordinazioa.

contamina paga y quien daña responde, debiendo integrarse la protección del medio ambiente en la definición y ejecución de todas las políticas sectoriales.

3.- La política ambiental propiciará la creación de una ordenación estable y duradera que dote de garantía, seguridad y eficacia a la acción pública y a la iniciativa privada.

**Artículo 6.** - Programa Marco Ambiental y memoria.

1.- La política ambiental del País Vasco se plasmará en un programa marco ambiental elaborado por el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco en colaboración con las Administraciones públicas representadas en la Comisión Ambiental del País Vasco.

El Programa Marco Ambiental, que tendrá una duración de cuatro años, será aprobado por el Gobierno, previo informe de la citada Comisión, y elevado posteriormente al Parlamento Vasco. Dicho programa marco podrá desarrollarse a través de planes y programas específicos.

2.- La Administración General de la Comunidad Autónoma publicará con carácter trienal una memoria sobre el estado del medio ambiente del País Vasco.

**Artículo 7.** - Ejercicio de competencias en materia de medio ambiente.

1.- Corresponde a las instituciones comunes la elaboración y aprobación de la normativa en materia de medio ambiente en el marco de lo establecido en la presente ley, así como el desarrollo legislativo y la ejecución de la legislación básica del Estado en materia de medio ambiente y ecología, de conformidad con lo previsto en el Estatuto de Autonomía para el País Vasco.

Asimismo, es competencia de las instituciones comunes la adopción de las medidas necesarias para la directa aplicación de los reglamentos de la Unión Europea y la ejecución de las obligaciones establecidas por las directivas y en el resto de la normativa comunitaria.

2.- Corresponde a los órganos forales de los territorios históricos ejercer las competencias reconocidas en la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, las atribuidas por la presente ley y por el resto de la normativa autonómica medioambiental.

3.- Corresponde a los municipios ejercer las competencias reconocidas por esta ley, las atribuidas por la legislación de régimen local y las que les atribuye la legislación sectorial medioambiental.

**Artículo 8.** - Coordinación de la política ambiental.



1.- Administrazio publikoek eraginkortasun- eta koordinazio-printzipioen arabera jardun behar dute ingurugiro arloko eskumenak erabiltzean.

2.- Ingurugiro-politikaren koherentzia bermatzeko, Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoaren egitekoa izango da Euskal Herriko interes orokorrek eskatzen duten koordinazio-ahalmenen erabiltzea. Adibide gisa, honako baliabide eta mekanismoak izango ditu:

- a) Arauak egitea.
- b) Ingurugiroari buruzko esparru-programa egitea.
- c) Prozedura administratiboak erraztea.
- d) Metodo eta irizpide teknikoak bateratzea.
- e) Agintaritzaren desberdinen ekintza bateratua beren eskumenen esparruan.
- f) Elkarri informazioa emateko sistemak ezartzea.

### 9. atala.- Euskal Herriko Ingurugiro Batzordea.

Euskal Herriko Ingurugiro Batzordea, ingurugiroaren arloan ardura duen sailari atxikitako aholku-organoa denez, ingurugiroaren arloan Euskal Autonomia Erkidegoan diharduten administrazio desberdinen harreman, parte-hartze eta koordinazioaz arduratzeko da.

### 10. atala.- Zereginak.

Euskal Herriko Ingurugiro Batzordearen egitekoak dira:

- a) Koordinazioa sustatzea eta ingurugiroaren arloan Batzordean ordezkatuta dauden erakundeek garatzen dituzten ekintza guztiei dagozkien segimendu-lanak egitea.
- b) Ingurugiro-eskumenak exekutatzeke erantzukizuna duten organo guztiei ekintza-proposamenak aurkeztea.
- c) Lege hau garatzeko arauen aurreproiektuez txostenak egitea.
- d) Ingurugiroari buruzko Esparru Programaz txostena egitea.
- e) Batzordean ordezkatuta dauden erakundeek prestatutako ingurugiro-arauen aurreproiektuen berri izan eta iritzia ematea.
- f) Ingurugiroari buruzko Esparru Programa garatzeko prestatutako plan eta programez txostenak egitea.

1.- En el ejercicio de competencias en materia de medio ambiente, las diversas Administraciones públicas actuarán de acuerdo con los principios de eficacia y coordinación.

2.- Para garantizar la coherencia de la política ambiental, corresponderá al órgano ambiental de la Comunidad Autónoma el ejercicio de las facultades de coordinación que demande el interés general del País Vasco y que comprenderá indicativamente algunos de los siguientes instrumentos y mecanismos:

- a) Elaboración de normativa.
- b) Elaboración del Programa Marco Ambiental.
- c) Simplificación de los procedimientos administrativos.
- d) Homogeneización de métodos y criterios técnicos.
- e) Acción conjunta de las respectivas autoridades en el ámbito de sus competencias.
- f) Implantación de sistemas de información recíproca.

### Artículo 9.- Comisión Ambiental del País Vasco.

La Comisión Ambiental del País Vasco, órgano de naturaleza consultiva adscrito al Departamento responsable del área de medio ambiente, se configura como un órgano de relación, participación y coordinación de las distintas Administraciones que en materia de medio ambiente actúan en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

### Artículo 10.- Funciones.

Son funciones de la Comisión Ambiental del País Vasco:

- a) Promover la coordinación y realizar las labores de seguimiento pertinentes de todas aquellas actuaciones que, en el área de medio ambiente, sean desarrolladas por las instituciones representadas en la Comisión.
- b) Elevar propuestas de actuación a todos aquellos órganos responsables de ejecutar competencias medioambientales.
- c) Informar los anteproyectos normativos elaborados en desarrollo de la presente ley.
- d) Informar el Programa Marco Ambiental.
- e) Conocer y pronunciarse sobre los anteproyectos normativos en materia medioambiental elaborados por las instituciones representadas en la Comisión.
- f) Informar los planes y programas elaborados en desarrollo del Programa Marco Ambiental.

g) Ingurugiroaren gainean eragin nabarmenak dituzten arauen aurreproiektuak, planak eta programak ezagutzea.

h) Ingurugiro-baliabideen katalogoz txostenak egitea.

i) Batzordeko barne-funtzionamendurako arauak onartzea eta, dagokionean, tratatu beharreko gaiak hori eskatzen dutenean, sailak sortzea.

### 11. atala. – Osaera.

Euskal Herriko Ingurugiro Batzordearen buru ingurugiro arloan eskumena duen saileko sailburua izango da, eta honako kide hauek izango ditu:

a) Ingurugiro-arloaren ardura duen saileko ordezkariak.

b) Beren jarduerak ingurugiroarekin zerikusia duten Jaurlaritzako sailetako ordezkariak.

c) Lurralde historikoetako foru-organoetako ordezkariak.

d) Euskal Udalerrien Elkarteko (EUDELeko) ordezkariak.

### III. ATALBURUA INGURUGIRORAKO AHOJKU KONTSEILUA

#### 12. atala. – Ingurugirorako Aholku Kontseilua.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugirorako Aholku Kontseilua sortzen da. Aholku ematekoa da izaeraz, eta ingurugiro-politika prestatu, kontsultatu eta segimendua egiten gizarteko eta ekonomia-ko interesak ordezkatzeko dituzten sektoreen eta unibertsitatearen parte-hartzeari laguntzeko da.

2.– Eragin administratiboei dagokienez, Kontseilua ingurugiroaren arloan eskumena duen sailera atxikitzen da.

#### 13. atala. – Zereginak.

Kontseiluak honako zeregin hauek izango ditu:

a) Ingurugiroarekin zerikusia duten eta iritzia eskatuz aurkezten dizkioten ingurugiro-politikako plan eta programei buruz aholku ematea.

b) Bere ekimenez edo ingurugiro arloko administrazio publikoen eskariz, txostenak eta proposamenak egitea.

c) Ingurugiro-politikak enplegua sortzearekin, garapen jasangarriarekin, ekimen ekonomiko publikoa eta pribatua koordinatzearekin eta ingurugiro arloan herritarrek parte hartzearekin eta hauek sentiberatzearekin lotzen dituzten neurriak proposatzea.

d) Unibertsitateak eta ikerketa-zentroek ingurugiro-politikan parte hartzea sustatzea.

#### 14. atala. – Osaera.

g) Conocer aquellos anteproyectos normativos, planes y programas que tuvieran significativas repercusiones sobre el medio ambiente.

h) Informar los catálogos de recursos ambientales.

i) Adoptar las normas de funcionamiento interno de la Comisión y crear, en su caso, secciones, cuando así lo requiera la naturaleza de los asuntos a tratar.

### Artículo 11. – Composición.

La Comisión Ambiental del País Vasco, presidida por la Consejera o Consejero titular del Departamento competente en materia de medio ambiente, estará constituida por los siguientes miembros:

a) Representantes del Departamento responsable del área de medio ambiente.

b) Representantes de aquellos Departamentos del Gobierno cuyas actuaciones guarden relación con el área de medio ambiente.

c) Representantes de los órganos forales de los territorios históricos.

d) Representantes de la Asociación de Municipios Vascos, EÚDEL.

### CAPÍTULO III CONSEJO ASESOR DE MEDIO AMBIENTE

#### Artículo 12. – Consejo Asesor de Medio Ambiente.

1.– Se crea el Consejo Asesor de Medio Ambiente de la Comunidad Autónoma del País Vasco, de naturaleza consultiva, para favorecer la participación de los sectores representativos de intereses sociales y económicos y de la Universidad, en la elaboración, consulta y seguimiento de la política ambiental.

2.– El Consejo queda adscrito, a efectos administrativos, al Departamento competente en materia de medio ambiente.

#### Artículo 13. – Funciones.

Corresponden al Consejo las siguientes funciones:

a) Asesorar en materia de política ambiental, planes y programas que sean sometidos a su consideración y guarden relación con el medio ambiente.

b) Emitir informes y propuestas, a iniciativa propia o a petición de las Administraciones públicas, en materia ambiental.

c) Proponer medidas que conecten las políticas ambientales con la generación de empleo, el desarrollo sostenible, la coordinación de la iniciativa económica pública y privada y la participación y sensibilización ciudadana en materia medioambiental.

d) Impulsar la participación de la Universidad y centros de investigación en la política ambiental.

#### Artículo 14. – Composición.

Ingurugiroaren Aholku Kontseilua, ingurugiro arloan eskumena duen saileko sailburua buru duela, ondorengo zerrendan ematen diren kideek osatuko dute.

Aholku Kontseiluko kideak ez dira 30 baino gehiago izango, eta beren ordezkaritza izateko honako hauek proposatuko dituzte:

- a) Eusko Legebiltzarrak
- b) Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak.
- c) Foru-administrazioek.
- d) Udal-administrazioek, EUDEL edo Euskal Udalerrien Elkarteak proposaturik.
- e) Ekologista arloan garrantzitsu diren herritar-elkarte edo -mugimenduek.
- f) Kontsumitzaile eta erabiltzaileen erakundeek.
- g) Enpresario-erakunde eta -taldeek.
- h) Sindikatuek.
- i) Teknologi zentroek.
- j) Ingurugiroarekin zerikusia duten ikerketa-zenetroek.
- k) EHU / UPVk.
- l) Ingurugiro arloan ospe handia duten pertsona adituek.

#### 15. atala. – Funtzionamendua.

1.– Aholku Kontseilua urtean gutxienez hiru aldiz bilduko da, bertako lehendakariak deituta, eta bere zereginak betetzeko behar den guztietan ere bai. Bileretako bat Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek prestatu behar direnean egin beharko da.

2.– Antolaketa eta barne-funtzionamendurako erregimena Kontseiluak berak ezarriko ditu indarrean dauden arau eta xedapen administratiboaren arabera.

#### IV. ATALBURUA INGURUGIROARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKURATZEKO ESKUBIDEA

16. atala. – Ingurugiroari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea.

Edozein pertsona fisiko edo juridikok, aurrez eskatuta, administrazio publikoek ingurugiroaz duten informazioa eskuratu ahal izango du, eskatzen duenaren nortasuna isilpean geratuko dela bermatuko zaiolarik eta eskatzen duenak interes jakinen bat duela frogatu beharrik izango ez duelarik.

#### 17. atala. – Esparrua.

El Consejo Asesor de Medio Ambiente, presidido por el Consejero o Consejera titular del Departamento competente en materia de medio ambiente, estará constituido por los vocales que se relacionan en el apartado siguiente.

Los vocales del Consejo Asesor, en número no superior a 30, lo serán en representación y a propuesta de:

- a) Parlamento Vasco.
- b) Administración General de la Comunidad Autónoma.
- c) Administraciones Forales.
- d) Administraciones Locales a propuesta de la Asociación de Municipios Vascos, EUDEL.
- e) Asociaciones o movimientos ciudadanos representativos de sectores ecologistas.
- f) Organizaciones de consumidores y usuarios.
- g) Organizaciones y agrupaciones empresariales.
- h) Organizaciones sindicales.
- i) Centros tecnológicos.
- j) Centros de investigación relacionados con el medio ambiente.
- k) UPV / EHU.
- l) Personas expertas de reconocido prestigio en materia medioambiental.

#### Artículo 15. – Funcionamiento.

1.– El Consejo Asesor se reunirá al menos tres veces al año, mediante convocatoria de su Presidente, y cuantas veces lo exija el cumplimiento de sus funciones. Una de las reuniones tendrá lugar preceptivamente con motivo de la elaboración de los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma.

2.– La organización y el régimen de funcionamiento interno serán establecidos por el propio Consejo, de acuerdo con las normas y disposiciones administrativas vigentes.

#### CAPÍTULO IV DERECHO DE ACCESO A LA INFORMACIÓN EN MATERIA DE MEDIO AMBIENTE

Artículo 16. – Derecho de acceso a la información en materia de medio ambiente.

Cualquier persona física o jurídica podrá acceder, previa solicitud, a la información que sobre el medio ambiente obre en poder de las Administraciones públicas, garantizando la confidencialidad de la identidad del solicitante y sin que éste se vea obligado a probar un interés determinado.

#### Artículo 17. – Ámbito.

1.- Administrazio publikoetan edo/eta ingurugiroarekin zerikusia duten zerbitzu publikoen emakidadunek, edozein adierazpide eta edozein motatako euskarri materialetan, eskueran duten informazioa abenduaren 12ko 38/1995 Legeak ingurugiroari buruzko informazioa eskuratzeko eskubideari buruz ezartzen duen prozeduraz emango da, eta gaia honakoa izango da:

4.- Los informes de impacto ambiental de los planes contendrán las directrices generales para la evaluación individualizada de impacto ambiental de los proyectos en ellos contemplados.

**Artículo 47.** - Evaluación individualizada de impacto ambiental.

1.- Con carácter previo a la resolución administrativa que se adopte para la realización o, en su caso, autorización de los proyectos contemplados en el apartado B) del Anexo I de esta ley, éstos se someterán a un procedimiento de evaluación individualizada que culminará con una declaración de impacto ambiental del órgano competente de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 44 y determinará, a los solos efectos ambientales, la conveniencia o no de tal actuación y, en caso afirmativo, fijará las condiciones en que deba realizarse.

2.- El contenido de la declaración de impacto ambiental tendrá efectos vinculantes en lo relativo a las medidas y condiciones para la ejecución de los proyectos contemplados en el apartado B) del Anexo I, así como respecto a la imposibilidad de su ejecución como consecuencia de una declaración desfavorable.

3.- En los supuestos de actividades incluidas en el Anexo II de la presente ley y sometidas a su vez al procedimiento de evaluación individualizada de impacto ambiental, dicha evaluación suplirá, a todos los efectos, al trámite de imposición de medidas correctoras al que se refiere el artículo 59 de esta ley.

4.- El plazo máximo para la emisión de la declaración de impacto ambiental será de cuatro meses, a contar desde la remisión del estudio de impacto ambiental al órgano competente de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 44. Transcurrido dicho plazo sin que existiera pronunciamiento expreso podrá proseguirse con el procedimiento.

5.- El plazo contemplado en el apartado anterior será de un mes en el supuesto de que el trámite de información pública contemplado en el Real Decreto Legislativo 1302/1986, de 28 de junio, hubiera sido sustanciado por el órgano que resuelva sobre la autorización o realización del proyecto.

6.- Eskumena duen organoak, 44. atalean xedatutakoaren arabera, eta arrazoitutako ebazpenaren bidez, luzatu ahal izango ditu ingurugiro-eraginaren deklarazioa emateko epeak, atal honetako 4 eta 5. azpiataletan aipatzen direnak.

7.- Eragin guztietarako, eta batez ere ingurugiroaren gaineko eraginaren deklarazioa betetzen dela zaindu eta segimendua egiteko, deklarazioaren edukia proiektuak egiteko (edo dagokionean baimena emateko) ebazpen administratiboaren gainerako edukien balio eta eragin berekoa izango da.

8.- Ingurugiroaren gaineko eraginaren deklarazioak epe bat emango du proiektuak burutzen hasteko, eta epe hori sustatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik proiektua burutzen hasi gabe igaro bada, deklarazioak indar guztia galduko du. Dena den, behar bezala justifikatutako arrazoiak badaude, burutzen hasteko epea luzatu ahal izango du organo eskudunak, 44. atalean xedatutakoaren arabera.

9.- Proiektuaren sustatzaileari eta ingurugiroaren gaineko eraginaren banakako ebaluazioaren prozedurako jendaurreko jakinarazpen-fasean alegazioak aurkeztu dituzten interesatu guztiei jakinaraztearen kalterik gabe, ingurugiroaren gaineko eraginaren deklarazioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian edota dagokion lurralde historikokoan argitaratuko da.

10.- Ingurugiroaren gaineko eraginaren deklarazioan jasotako baldintza orokorrak edo berariazkoak moldatu egin beharko dira aurrerapen zientifiko edo teknikoak ekarri dituen eta ebaluatutako jardueran eragina duten berrikuntzetara, betiere ekonomikoki bideragarriak baldin badira, kostuak eta onurak kontuan izanik eta proiektuaren sustatzaileak berrikuntza horietara arrazoizko moduan iristerik badu.

11.- Erabat deusezak izango dira ingurugiroaren gaineko eraginaren banakako ebaluazioaren prozedura bete gabe eman diren baimen, lizentzia eta gaineko ebazpenak, prozedura hori exigi daitekeenean.

**48. atala.** - Desadostasunak ebaztea.

Aurreko ataleko lehen azpiatalean aipatutako organoen artean egon daitezkeen desadostasunak Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzak ebatziko ditu edo, dagokionean, eskudun foru-aldundiak.

**49. atala.** - Ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazio sinplifikatua.

Eranskineko C) zatian aipatzen diren eta bertako B) zatian ez dauden proiektuak egiteko (edo, dagokionean, baimena emateko) ebazpen administratiboa onartu baino lehen, ebazpena onartzeko eskudun organoak proiektuaren ebaluazio sinplifikatua eginaraziko du. Ebaluazioa ingurugiroaren gaineko eraginari buruzko txostenarekin amaituko da. Bertan ingurugiroaren gaineko eragin garrantzitsuenak eta hauek

6.- El órgano competente, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 44, podrá prorrogar, mediante resolución motivada, los plazos para la emisión de la declaración de impacto ambiental a los que se refieren los apartados 4 y 5 del presente artículo.

7.- A todos los efectos, y en especial a los de vigilancia y seguimiento del cumplimiento de la declaración de impacto ambiental, el contenido de ésta tendrá el mismo valor y eficacia que el resto del contenido de la resolución administrativa que se adopte para la realización o, en su caso, autorización de los proyectos.

8.- La declaración de impacto ambiental contendrá un plazo para el inicio de la ejecución de los proyectos, transcurrido el cual sin haberse procedido al mismo, por causas imputables a su promotor, aquélla perderá toda su eficacia. No obstante, si existieran causas debidamente justificadas, el órgano competente, de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 44, podrá prorrogar el plazo de inicio de ejecución.

9.- Sin perjuicio de su notificación al promotor del proyecto y a cuantos interesados hubiesen formulado alegaciones en la fase de información pública del procedimiento de evaluación individualizada de impacto ambiental, la declaración de impacto ambiental se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco y/o en el del territorio histórico donde corresponda.

10.- Las condiciones generales o específicas recogidas en la declaración de impacto ambiental deberán adaptarse a las innovaciones aportadas por el progreso científico o técnico que incidan sobre la actividad evaluada, siempre que sean económicamente viables, tomando en consideración los costes y beneficios y que el promotor del proyecto pueda tener acceso a ellas en condiciones razonables.

11.- Serán nulas de pleno derecho las autorizaciones, licencias y demás resoluciones adoptadas sin observar el procedimiento de evaluación individualizada de impacto ambiental, cuando éste sea exigible.

**Artículo 48.** - Resolución de discrepancias.

Las discrepancias que pudieran generarse entre los órganos citados en el apartado primero del artículo anterior serán resueltas por el Gobierno de la Comunidad Autónoma o en su caso por la Diputación Foral correspondiente.

**Artículo 49.** - Evaluación simplificada de impacto ambiental.

Con carácter previo a la resolución administrativa que se adopte para la realización o, en su caso, autorización de los proyectos contemplados en el apartado C) del Anexo I y no incluidos en el apartado B) del mismo, el órgano competente para emitir dicha resolución someterá el proyecto a una evaluación simplificada, la cual culminará en un informe de impacto ambiental que identifique las afecciones ambientales



minimizatzeko neurri zuzentzaileak adieraziko dira. Txostenaren edukia aipatutako ebazpen administratiboan joango da.

**50. atala.**– Plan eta proiektuen aldaketak edo hedapenak.

1.– Lege honen I. eranskinean aipatutako eta baimena emandako, burututako edo burutzen ari den plan edo proiektuaren edozein aldaketa edo hedapenarako, bertan aipatzen diren ingurugiroaren gaineko eragineko ebaluazio-prozeduretakoren bat ezarriko da, ingurugiroan eragin negatibo esanguratsuak eduki baditzake aldaketa edo hedapen horrek.

2.– Araudi bidez ezarriko da eskudun organoak onartzen den ebazpen administratiboa emateko prozedura. Ebazpen horren gaia, aurreko paragrafoan aipatutako plan edo proiektuak egiteko (edo, dagokionean, baimena emateko) proposatutako aldaketa edo hedapenengatik egon daitezkeen ingurugiroaren gaineko eragin negatiboak garrantzitasak diren edo ez finkatzea izango da.

3.– Aurreko paragrafoak aipatzen duen prozedurak kasu bakoitzerako azterketa ezar dezake edo aurrez atalase edo irizpideak finkatzea ere bai, horretarako 97/11/CE Arteztarauaren III. eranskinean ezarritako hautespen-irizpideak kontuan hartu beharko direlarik.

**51. atala.**– Ingurugiro-zona sentikorrak.

1.– Ingurugiro-zona sentikortzat hartuko dira dauzkaten ingurugiro-balio eta beren hauskortasuneko ezaugarri bereziengatik ingurugiroa gehiago kaltezteko modua dagoenekoak.

2.– Atalburu honetan xedatzen dena aplikatzeko, eta nolahi ere lege hau promulgatzen den unean hiri-lurzorutzat sailkatutako lurak salbuetsiz, zona sentikortzat gutxienez ondoko hauek hartuko dira:

a) Itsaso/lehorreko jabari publikoa eta horren babes-zortasunak.

b) Uretako jabari publikoa, korrante iraunkorreko ibilgu naturalak, laku eta aintziretako hondoak eta ibilgu publikoetako gaineko urtegien hondoak. Garbitasun-zona eta ertzetako zortasun-zonari dagozkion areak, betiere katalogatuta badaude.

c) Akuiferoak kargatzeko zonak eta horiek poluitzeko arrisku handia duten zonak, betiere katalogatuta baldin badaude.

d) Natura aldetik interes handikoak diren zona edo enklabeak, betiere katalogatuta baldin badaude.

e) Ondare historiko artistikoaren zati direlako katalogatuta eta inbentariatuta dauden area edo enklabeak, ingurunea barne.

más significativas y exprese las medidas correctoras para minimizarlas y cuyo contenido deberá incorporarse al de la resolución administrativa mencionada.

**Artículo 50.**– Cambios o ampliaciones de planes y proyectos.

1.– Cualquier cambio o ampliación de un plan o proyecto que, encontrándose recogido en el Anexo I de esta ley, se halle ya autorizado, ejecutado o en proceso de ejecución, será sometido a alguno de los procedimientos de evaluación de impacto ambiental que en ella se contemplan, en el caso de que pueda tener efectos negativos significativos sobre el medio ambiente.

2.– Reglamentariamente se establecerá el procedimiento para que el órgano competente para emitir la resolución administrativa que se adopte para la realización o, en su caso, autorización de los planes o proyectos contemplados en el párrafo anterior determine si los posibles efectos negativos sobre el medio ambiente derivados de los cambios o ampliaciones propuestos tienen un carácter significativo.

3.– El procedimiento al que se refiere el párrafo anterior podrá contemplar un estudio caso por caso o el establecimiento previo de umbrales o criterios, debiendo tener en cuenta los criterios de selección establecidos en el Anexo III de la Directiva 97/11/CE.

**Artículo 51.**– Zonas ambientalmente sensibles.

1.– Se entenderá por zona ambientalmente sensible la que por sus especiales características en cuanto a valores ambientales contenidos y fragilidad de los mismos sea susceptible de un mayor deterioro ambiental.

2.– A efectos de la aplicación de lo dispuesto en este capítulo, y exceptuándose en todo caso el territorio clasificado como suelo urbano en el momento de la promulgación de la presente ley, se entenderán, al menos, como zonas sensibles las siguientes:

a) El dominio público marítimo terrestre y su servidumbre de protección.

b) El dominio público hidráulico que incluye los cauces naturales de corriente continua, los lechos de los lagos y lagunas y los de los embalses superficiales en cauces públicos. Las áreas pertenecientes a la zona de policía y zona de servidumbre de márgenes siempre y cuando se encuentren catalogadas.

c) Áreas de recarga de acuíferos, así como zonas que presenten alta vulnerabilidad a la contaminación de los mismos, siempre y cuando se encuentren catalogadas.

d) Áreas o enclaves de elevado interés naturalístico siempre y cuando se encuentren catalogadas.

e) Las áreas o enclaves catalogados o inventariados por constituir parte del patrimonio histórico artístico, incluyéndose su entorno.

3.- Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzari dagokio, eskudun organoak proposatuta eta Euskal Herriko Ingurugiro Batzordeak aurretiazko txostena eginda, ingurugiro-zona sentikorren katalogoa onartzea.

4.- Araudiz finkatuko da katalogoak berrikusi eta aldatzeko prozedura, beti eguneratuta egon daitezen.

**52. atala.**- Erkidegoarteko eta mugaz haraindiko harremanak.

1.- Beste autonomia-erkidego batean ingurugiroaren gaineko eragina ebaluatzeko jarduerak izan eta Euskal Autonomia Erkidegoan eragina izango balute, azken honek erkidego hari jarduera horri buruzko informazioa eskatuko lioke.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoan garatutako jarduera batek ondoko beste Autonomi Elkarte batean eragina badu, hark jarduera horri buruzko informazioa eskainiko du.

2.- Lege honen I. eranskinean aipatutako ekintzak burutzeak mugaz haraindi beste estatu bateko ingurugiroan eragina izango balu, Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organok kasu horretarako egiten den ingurugiroaren gaineko eraginaren azterketa eskainiko lieke erasandako lurraldeko eskudun agintariei.

**53. atala.**- Ikuskapena eta kontrola.

1.- Planak edo proiektuak burutzeko (edo, dago-kionean, baimena emateko) onartzen den ebazpen administratiboa luzatzeko eskudun organoak bere gain hartuko du ingurugiroaren gaineko eraginaren txostenean edo deklarazioan ezarritako baldintzak betetzen direla zaintzea eta kontrolatzea.

2.- 44. atalean xedatutakoaren arabera eskudun organoak agindu dezake I. eranskineko B) zatiko eta baimena emandako proiektuak geraraztea, derrigorrezkoa den ebaluaziorik egon ez denean, ebaluazio-prozeduran datuak faltsutu, manipulatu edo ezkutu egin direla ikusten denean edo deklarazioan aipatzen diren ingurugiro-baldintzak hautsi edo betetzen ez direnean.

3.- Aurreko azpiatalak aipatzen dituen proiektuak burutzeagatik errealitate fisikoa edo biologikoa aldatuko balitz, aldaketaren arduradunak lehengo egoerara itzularazi beharko luke, 44. atalean xedatutakoaren arabera eskudun organoak adierazten duen moduan eta epeetan.

**54. atala.**- Finantzaketa publikoa.

3.- Corresponderá al Gobierno de la Comunidad Autónoma la aprobación, a propuesta del órgano ambiental y previo informe de la Comisión Ambiental del País Vasco, de un catálogo de zonas ambientalmente sensibles.

4.- Reglamentariamente se determinará el procedimiento de revisión y modificación de los catálogos a fin de mantenerlos permanentemente actualizados.

**Artículo 52.**- Relaciones intercomunitarias y transfronterizas.

1.- En el supuesto de actuaciones sometidas a evaluación de impacto ambiental que, teniendo lugar en otra Comunidad Autónoma, tuvieran incidencia en el territorio de la Comunidad Autónoma vasca, esta última solicitará de aquella Comunidad información sobre dicha actividad.

Asimismo, en el supuesto de que una actividad desarrollada en la Comunidad Autónoma vasca tenga efectos sobre el medio ambiente de otra Comunidad Autónoma colindante, aquélla procederá a facilitar información sobre dicha actividad.

2.- En el supuesto de que la ejecución de las actuaciones contempladas en el Anexo I de esta ley causara efectos transfronterizos sobre el medio ambiente de otro Estado, el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma facilitará a las autoridades competentes del territorio afectado el estudio de impacto ambiental que a tal efecto se elabore.

**Artículo 53.**- Inspección y control.

1.- El órgano competente para emitir la resolución administrativa que se adopte para la realización o, en su caso, autorización de los planes o proyectos asumirá la vigilancia y control del cumplimiento de las condiciones impuestas en el informe o en la declaración de impacto ambiental.

2.- El órgano competente de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 44 podrá ordenar la suspensión de la ejecución de los proyectos ya autorizados contemplados en el apartado B) del Anexo I cuando no hubiera tenido lugar la preceptiva evaluación o se descubra falseamiento, manipulación u ocultación de datos en el procedimiento de evaluación, así como un incumplimiento o transgresión de las condiciones ambientales contempladas en la declaración.

3.- Cuando, como consecuencia de la ejecución de los proyectos a que se refiere el apartado anterior, resultara una alteración de la realidad física o biológica, el responsable de la misma deberá proceder al restablecimiento a la situación anterior, en la forma y plazos que disponga el órgano competente de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 44.

**Artículo 54.**- Financiación pública.

Finantzaketa publikorik ezingo da egin ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazioko prozedurapean dauden eta prozedura hori gabe edo prozedurako erabakien kontra egindako proiektuei.

### III. ATALBURUA SAILKATUTAKO JARDUERAK

#### 55. atala.- Aplikazio-esparrua.

1.- Legearen II. eranskinean aipatzen diren jarduera eta instalazio publikoak zein pribatuak, eragozpenak sor baditzakete edo pertsoneri edo beren ondasunei arriskuak sortu, edo ingurugiroari kalteak eragiten badizkiote, hurrengo ataletan aipatzen den lizentzia administratiboaren erregimenaren menpe geratuko dira funtzionatzen hasi baino lehen eta derrigorrez. Jarduera eta instalazio horien izen generikoa sailkatutakoak izango da.

2.- Ingurugiroan eta pertsonen osasunean eragin txikia dutelako atalburu honetan ezarritako erregimenetik aske geratzen diren jardueren zerrenda araudian finkatuko da. Baita lizentzia lortzeko prozedura sinplifikatua izan dezaketenean ere, eta hori guztia horretarako berariaz adieraziko diren baldintzak bete ondoren.

#### 56. atala.- Jarduera-lizentzia.

Sailkatutako jarduera bat ezartzeko (eta hedatzeko nahiz aldatzeko) ahalmena ematen duen udal-lizentziari jarduera-lizentzia deituko zaio eta formalizatzeko ondorengo azpiataletan zein garatzeko emango diren arauetan zehaztutakoa bete beharko da.

#### 57. atala.- Jarduera-lizentziaren eskaera.

1.- Jarduera-lizentzia eskatu baino lehen, jarduera publiko zein pribatuaren sustatzaileak udalean kontsulta egin ahal izango du, lizentziaren baldintza juridiko eta teknikoei buruz, aurreikus daitezkeen neurri zuzentzaileei buruz eta jardueraren bideragarritasun formalaz informazioa eskuratzeko.

2.- Lizentzi eskearekin batera, eskudun teknikiariak sinatuta, proiektu teknikoa eta deskribapen txostena aurkeztu beharko dira. Bertan jardueraren ezaugarriak, kokatuko den ingurunearen deskribapena, ingurugiroan izan ditzakeen eraginak eta erabiltzeko proposatzen diren neurri zuzentzaileak (beren eraginkortasun-maila eta segurtasun-bermea adieraziz) zehaztuko dira.

3.- Ingurugiro-eraginaren ebaluazioa behar duten proiektuetan, aurreko azpiatalean aipatutako dokumentazioak ingurugiroaren gaineko eraginaren azter-

No podrá otorgarse financiación pública a los proyectos sometidos a los procedimientos de evaluación de impacto ambiental que se hubieran realizado con ausencia del procedimiento o contraviniendo las determinaciones resultantes del mismo.

### CAPÍTULO III ACTIVIDADES CLASIFICADAS

#### Artículo 55.- Ámbito de aplicación.

1.- Las actividades e instalaciones públicas o privadas, contenidas en el Anexo II de la presente ley, que fueran susceptibles de causar molestias o producir riesgos a las personas o sus bienes, así como originar daños al medio ambiente, deberán sujetarse al régimen de licencia administrativa contemplado en los artículos siguientes, con carácter preceptivo y previo a su puesta en funcionamiento. Dichas actividades e instalaciones adoptarán la denominación genérica de clasificadas.

2.- Se determinará reglamentariamente la relación de actividades que por su escasa incidencia en el medio ambiente y en la salud de las personas resulten exentas de la aplicación del régimen establecido en el presente capítulo, así como la de aquellas que pudieran ser objeto de un procedimiento simplificado de obtención de licencia, y todo ello previa cumplimentación de los requisitos que a tal efecto se especifiquen.

#### Artículo 56.- Licencia de actividad.

La licencia municipal que faculta para la implantación de una actividad clasificada, así como para su ampliación o reforma, se denominará licencia de actividad y se atenderá en su formalización a lo especificado en los siguientes apartados y en la normativa de desarrollo que se dicte.

#### Artículo 57.- Solicitud de licencia de actividad.

1.- Con antelación a la propia solicitud de licencia de actividad, el promotor de la actividad pública o privada podrá realizar una consulta al Ayuntamiento, dirigida a que se le proporcione información de los requisitos jurídicos y técnicos de la licencia y de las medidas correctoras previsibles, así como sobre la viabilidad formal de la actividad.

2.- La solicitud de la licencia deberá acompañarse de proyecto técnico y memoria descriptiva, firmados por técnico competente, en los que se detallarán las características de la actividad, la descripción del medio sobre el que se emplace, su posible repercusión ambiental y las medidas correctoras que se propongan utilizar, con expresión de su grado de eficacia y garantía de seguridad.

3.- En los supuestos de proyectos sometidos a evaluación de impacto ambiental, la documentación citada en el apartado anterior deberá incorporar un es-

keta edukiko du, idazpuru honetako II. atalburuan xedatutakoa aplikatzearen.

**58. atala.**– Jendaurrean jarri eta txostenak egitea.

1.– Hirigintzako planetan edo udal-ordenantzetan oinarrituta udal-eskumenengatik jarduera-lizentzia espreski ukatzea ez dagokionean, alkateak 15 eguneko epearen barruan jarduera ezartzeko eskearen espedientea jendaurrean jarriko du, Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratuz, eta pertsonalki jakinaraziko die ezarriko den lekuko inguruko auzotarrei.

2.– Jendaurrean jartzeko epea 15 eguneko izango da, erasanda senti daitezkeenek beren alegazioak aurkez ditzaten. Halaber, espedienteari derrigorrezkoa eta loteslea izango den osasun-txostena erantsiko zaio, era berean jardueraren izaeragatik beharrezkoak diren txosten teknikoak ere sartuko direlarik.

3.– Osasun-txostena eta gainerako txosten teknikoak gehienez ere 15 eguneko epearen barruan egingo dira, jendaurrean jartzeko denboraldia amaitu ondoren. Lehen aipatutako tramiteak egin ondoren, udalak arrazoiak emanez txostena egingo du gehienez 10 eguneko epearen barruan, aipatutako jarduera ezartzei buruz.

**59. atala.**– Neurri zuzentzaileak ezartzea.

1.– Aurkeztutako dokumentazioa eta aipatutako udal-ekintzak ikusita eta alkateak jardueralizentzia eman baino lehen, Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoak edo eskudun foru-organoak txostena egingo du, dagokionean eskatutako jardueraren instalazio- edo hedapen-proiektuari gehienez hamabost eguneko epean neurri zuzentzaileak ezarriko dizkiolarik.

2.– Aurreko azpiatalak aipatzen duen txostena loteslea izango da bai udal-agintaritzarentzat jardueralizentzia ematearen kontrakoa denean eta bai neurri zuzentzaileak ezartzeko premia dagoela erabakitzen duenean.

**60. atala.**– Isiltasun administratiboa.

Lizentzi eskea formalki udalean aurkeztu, geroztik sei hilabete igaro eta erabakitzeko organoak espreski ebazpenik jakinarazi ez duenean eta eskatzaileari prozedura geraraztea egozterik ez dagoenean, lizentzia emantzat hartuko da Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Jardunbide Komunitari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 43. atalaren arabera, Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoak edo eskudun foru-organoak kontrako txostena jakinarazi eta delako udalak gauzatu gabe dagoen kasuan izan ezik.

tudio de impacto ambiental, a efectos de la aplicación de lo dispuesto en el Capítulo II de este título.

**Artículo 58.**– Información pública y emisión de informes.

1.– Salvo que proceda la denegación expresa de la licencia de actividad por razones de competencia municipal basadas en el planeamiento urbanístico o en las ordenanzas municipales, el Alcalde o Alcaldesa, en el plazo de 15 días, someterá el expediente relativo a la solicitud de establecimiento de actividad a exposición pública en el Boletín Oficial del Territorio Histórico y la notificará personalmente a los vecinos inmediatos al lugar donde haya de emplazarse.

2.– El periodo de exposición pública será de 15 días, al objeto de que puedan presentarse alegaciones por quienes se consideren afectados. Asimismo, se incorporará al expediente un informe sanitario de carácter preceptivo y vinculante, debiendo incluirse, igualmente, aquellos informes técnicos que resulten necesarios según la naturaleza de la actividad.

3.– La emisión del informe sanitario y del resto de informes técnicos se llevará a cabo en el plazo máximo de 15 días una vez agotado el periodo de exposición pública. Realizados los trámites señalados anteriormente, el Ayuntamiento emitirá informe razonado sobre el establecimiento de la mencionada actividad en el plazo máximo de 10 días.

**Artículo 59.**– Imposición de medidas correctoras.

1.– A la vista de la documentación presentada y de las actuaciones municipales indicadas y previamente al otorgamiento de la licencia de actividad por el Alcalde o Alcaldesa, el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma u órgano foral competente emitirá informe imponiendo, cuando procediere, medidas correctoras al proyecto de instalación o ampliación de la actividad solicitada, en el plazo máximo de quince días.

2.– El informe al que se refiere el apartado anterior será vinculante para la autoridad municipal cuando sea contrario a la concesión de la licencia de actividad, así como cuando determine la necesidad de imposición de medidas correctoras.

**Artículo 60.**– Silencio administrativo.

Transcurridos seis meses desde que se presentó formalmente la solicitud de licencia ante el Ayuntamiento sin haberse emitido resolución expresa por el órgano decisorio, y no mediando paralización del procedimiento imputable al solicitante, se entenderá otorgada la licencia en los términos del artículo 43 de la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, sobre Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, salvo en aquellos casos en que el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma u órgano foral competente hubiere notificado su informe desfavorable y se hallase éste pendiente de ejecución por parte del respectivo Ayuntamiento.

**61. atala.**– Obrak egiteko eta irekitzeko lizentziarik harremana.

1.– Udalek ezingo dute sailkatutako jardueretarako obrak egiteko lizentziarik eman jarduera-lizentzia ematen ez den bitartean.

2.– Eskatzaileak jarduera-lizentzian ezarritako neurriak bete direla jakinarazten duen hurrengo egunetik hasita 15 egun naturaleko epean, udalteknikariek ikuskapen-bisita egingo dute. Aldeko egiaztapen-akta egingo dute, instalazioa onartutako proiektuarekin eta Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoak edo eskudun foru-organoak ezarritako neurri zuzentzaileekin ados dagoela egiaztatu ondoren. Bestela, interesatuari ikusitako hutsuneen berri jakinaraziko diote eta epe bat emango diote dauden hutsuneak betetzeko.

3.– Aldeko egiaztapen-akta eman ondoren eta sailkatutako jardueran hasi baino lehen, dagokion udalak irekitzeko lizentzia emango dio.

4.– Irekitzeko lizentzia energia elektrikoaren horniketa behin betiko erantsi edo handiagotu, erregai likido edo gaseosoak erabili eta edateko ura hornitu baino lehen lortu behar da.

5.– Lizentziak indarrrik gabe geratuko dira emateko baldintzak betetzen ez badira. Eta lizentzia edo baimena ukatzeko balio zezaketen arrazoiak agertzen badira, eta horiek emateko balio duten arrazoiak interpretatzeko irizpide berriak onartzen badira, ezeztatu egingo dira lizentzia horiek, hori guztiori Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Jardunbide Komunari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legean jasotako administrazio-egintzak beraztertze prozeduren arabera.

**62. atala.**– Eskumenak delegatzea.

Autonomia Erkidegoko Jaurlaritzak eta lurralde historikoetako foru-organoek, beren eskumenen esparruan, zerbitzu egokiak dituzten udaletan delegatu ahal izango dute, udalok aurrez espresuki eskatuta, finkatzen diren jardueretarako neurri zuzentzaileak ezartzeko txostenak egitea. Nolanahi ere, onartu egingo da eskumen horiek erkidetutako, partuzergoz elkartutako edo beste era bateko udal-elkarteetan bildutako organoen bidez benetan erabiltzea.

**63. atala.**– Interes orokorreko jarduerak.

Jaurlaritzak erabakitze ahalmena izango du Autonomia Erkidegoko interes orokorre zuzenean erasaten dieten ingurugiro-kudeaketako azpiegituren gaitan, aurrez udalaren txostena edukiz eta kasuaren apartekotasunaren arrazoiaren deklarazioa egin ondoren.

**Artículo 61.**– Relación con las licencias de obra y apertura.

1.– Los Ayuntamientos no podrán conceder licencias de obra para actividades clasificadas en tanto no se haya concedido la licencia de actividad.

2.– En el plazo de 15 días naturales contados a partir del siguiente a la notificación por el solicitante del cumplimiento de las medidas impuestas en la licencia de actividad, los técnicos municipales girarán visita de inspección y expedirán un acta de comprobación favorable, una vez constatado que la instalación se ajusta al proyecto aprobado y a las medidas correctoras impuestas por el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma u órgano foral competente. En otro caso, comunicará al interesado las deficiencias observadas, otorgando un plazo para su subsanación.

3.– Expedida el acta de comprobación favorable y con anterioridad al inicio de una actividad clasificada, el Ayuntamiento respectivo otorgará una licencia de apertura.

4.– La obtención de la licencia de apertura será previa a la concesión de las autorizaciones de enganche definitivo o ampliación de suministro de energía eléctrica, de utilización de combustibles líquidos o gaseosos y de abastecimiento de agua potable.

5.– Las licencias quedarán sin efecto si se incumprieran las condiciones a que estuvieran subordinadas y deberán ser revocadas cuando aparezcan circunstancias que hubieran justificado la denegación de la licencia o autorización y cuando se adopten nuevos criterios interpretativos sobre las normas que rigen la concesión, todo ello de acuerdo con los procedimientos de revisión de los actos administrativos contemplados en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

**Artículo 62.**– Delegación competencial.

El Gobierno de la Comunidad Autónoma y los órganos forales de los territorios históricos, en el ámbito de sus respectivas competencias, podrán delegar en aquellos Ayuntamientos que cuenten con servicios adecuados, previa petición expresa, la emisión de informes sobre imposición de medidas correctoras para las actividades que se determinen. En todo caso, se admitirá que el ejercicio efectivo de estas competencias pueda llevarse a cabo a través de órganos mancomunados, consorciados o en otra forma de asociaciones locales.

**Artículo 63.**– Actividades de interés general.

El Gobierno dispondrá de facultades decisorias en relación con aquellas infraestructuras de gestión medioambiental que afecten directamente a intereses generales de la Comunidad Autónoma, previo informe municipal y declaración motivada sobre la singularidad del supuesto.

**64. atala.**– Ikuskapena eta kontrola.

1.– Udalaren eskumenekoak izango dira lizentzia-eraren edukian xedatutakoa benetan betetzeko eta behar diren ikuskapenak egiteko garatu behar diren eginkizunak. Dagokien alkateak ahalmena du legez kanpoko jarduerak bertan behera utzi edo ixteko, lizentziak deuseztatzeko eta legez finkatuta dauden zigorrak ezartzeko.

2.– Jardueraren funtzionamenduan akatsak daudela ikusten denean, alkateak jardueraren titularrari haiek epe jakin baten barruan konpontzera errekerituko du, eta epea, behar bezala justifikatutako kasu berezietan izan ezik, sei hilabetekoa baino luzeagoa ez da izango.

3.– Alkateak, Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoak edo eskumena duen foru-organoak, prebentzio gisa, eraikuntza- edo ustiapen-fasean dagoen edozein jarduera erabat edo neurri batean geraraz dezake, ondoko arrazoiren bat dagoenean:

a) Lizentzia eskatzen den proiektuan datuak ezkutu, faltsutu edo maltzurkeriaz manipulatu direnean.

b) Proiektua gauzatzeko ezarri diren ingurugiro-baldintzak bete ez direnean edo aginduak hautsi direnean.

c) Ingurugiroari kalte larriak edo konponezinak egingo zaizkiola edo pertsona zein ondasunentzat berehalako arriskua dagoela susmatzeko arrazoi sendoak daudenean, egoera hori dagoen bitartean, arriskuak baloratzeko edo murrizteko behar diren neurriak har ditzaketelarik.

4.– Bai funtzionamenduan eta bai denboraldi biterako gerarazita zein behin betiko itxita dagoen jardueraren titularrak ezarri zaion neurri zuzentzailea gauzateari uko egiten dionean, ekintza agindu duen agintariak, aurrez ohartarazita, ordezkio izaeraz neurria gauzatu ahal izango du eta titularraren kontu izango dira hortik sortutako gastuak, zeinak premia-mendu-bidez exigitu ahal izango baitira.

**65. atala.**– Lizentziarik gabeko jarduerak.

Dagozkien zigorren kalterik gabe, alkateak jarduera batek beharrezko lizentziarik gabe funtzionatzen duela jakiten duenean, honako iharduketak hauek burutuko ditu:

a) Jarduera legezatzeko modukoa baldin bada, bere titularrari errekerituko du egoera arauen barruan jar dezan. Horretarako epea emango zaio, eta epea, behar bezala justifikatutako ohiz kanpoko kasuetan izan ezik, sei hilabetekoa baino luzeagoa ez da izango. Gainera, jarduera itxi egin ahal izango da egoerak hori egokia dela erakusten badu, interesatuari entzun ondoren.

**Artículo 64.**– Inspección y control.

1.– Serán competencia municipal las funciones a desarrollar para el efectivo cumplimiento de lo dispuesto en el contenido de la licencia, así como para realizar las debidas inspecciones, hallándose facultados los Alcaldes o Alcaldesas respectivos para decretar la suspensión o clausura de las actividades ilícitas, la revocación de las licencias y la imposición de las sanciones legalmente determinadas.

2.– Advertidas deficiencias en el funcionamiento de una actividad, el Alcalde o Alcaldesa requerirá al titular de la misma para que corrija aquéllas en un plazo determinado que, salvo casos especiales debidamente justificados, no podrá ser superior a seis meses.

3.– El Alcalde o Alcaldesa o el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma u órgano foral competente podrá paralizar, con carácter preventivo, cualquier actividad en fase de construcción o explotación, total o parcialmente, por cualquiera de los siguientes motivos:

a) Ocultación de datos, su falseamiento o manipulación maliciosa en el proyecto cuya licencia se solicita.

b) El incumplimiento o transgresión de las condiciones ambientales impuestas para la ejecución de proyecto.

c) Cuando existan temores fundados de daños graves o irreversibles al medio ambiente o peligro inmediato para personas o bienes, en tanto no desaparezcan las circunstancias determinantes, pudiendo adoptar las medidas necesarias para valorar o reducir riesgos.

4.– Cuando el titular de una actividad, tanto en funcionamiento como en situación de suspensión temporal o clausura definitiva, se niegue a adoptar alguna medida correctora que le haya sido impuesta, la autoridad que haya requerido la acción, previo apercibimiento, podrá ejecutarla con carácter sustitutorio, siendo a cargo del titular los costes derivados, que serán exigibles por vía de apremio.

**Artículo 65.**– Actividades sin licencia.

Sin perjuicio de las sanciones que procedan, cuando el Alcalde o Alcaldesa tenga conocimiento de que una actividad funciona sin las licencias pertinentes efectuará las siguientes actuaciones:

a) Si la actividad pudiese legalizarse, requerirá al titular de la misma para que regularice su situación, concediéndole al efecto un plazo que, salvo casos excepcionales debidamente justificados, no podrá ser superior a seis meses, pudiendo además clausurarla, si las circunstancias lo aconsejaren, previa audiencia del interesado.

b) Indarrean dauden sektoreko arauak edo dagozkion udal-ordenantzak betetzen ez direlako jarduerarako legeztatzerik ez badago, itxi egin behar da, interesatuari entzun ondoren.

**66. atala.**– Sailkatutako jardueren erregistroa.

1.– Udalek Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoari edo eskudun foru-organoari berri eman beharko diote emandako lizentziez eta toki-erakundeek sailkatutako jardueraz hartutako gainerako erabakiez.

2.– Udalek sailkatutako jardueren erregistroa edukiko dute. Bertan gai honi buruzko edozein parte hartze publiko jaso beharko da.

IV. ATALBURUA  
HONDAKINAK

1. SAILA  
XEDAPEN OROKORRAK

**67. atala.**– Definizioak.

Lege honi dagokionerako, hondakintzat bere edukitzaileak utzitako edo uzteko asmoa edo obligazio duen edozein substantzia edo objektu hartuko da. Nolanahi ere, hondakintzat hartuko dira Batzordearen 1993ko abenduaren 20ko (94/3/CE) erabakiz Europako Hondakin Katalogoan dauden eta aurreko lege-definizioarekin bat datozenak.

**68. atala.**– Kanpo geratzen direnak.

Atalburu honetan xedatzen denari dagokionez, berriazko legerian arautu gabe geratzen diren alderdietan ordezko zuzenbide gisa izan dezakeen aplikazio ordezkatzailearen kalterik gabe, kanpo geratzen dira:

- a) Hondakin erradioaktiboak.
- b) Baliabide mineraletatik eta harrobietatik eratorritako hondakinak.
- c) Sailkatu gabeko lehergaiak.
- d) Hondakin arriskutsu ez diren hondakin-urak.
- e) Atmosferara isuritako gasak.

**69. atala.**– Oinarriak.

Hondakinen gaiari buruz Autonomia Erkidegoak duen politikak ondoko oinarriak ditu, hierarkiaren araberrako ordenan zerrendatzen direlarik:

- a) Jatorrian prebenitu eta minimizatzea, produkzioa eta kaltegarritasuna murriztuz.
- b) Berriz erabiltzea, birziklapena eta balioztatzeke zein zikloak ixteko beste edozein forma sustatzea.

b) Si la actividad no pudiera legalizarse por incumplimiento de la normativa sectorial vigente o de las ordenanzas municipales correspondientes, deberá procederse a su clausura, previa audiencia del interesado.

**Artículo 66.**– Registro de actividades clasificadas.

1.– Los Ayuntamientos tendrán el deber de informar al órgano ambiental de la Comunidad Autónoma u órgano foral competente de la concesión de licencias y demás decisiones adoptadas por parte del ente local en relación con las actividades clasificadas.

2.– Los Ayuntamientos mantendrán un registro de actividades clasificadas, en el que deberá incluirse cualquier actuación pública que se refiera a esta materia.

CAPÍTULO IV  
RESIDUOS

SECCIÓN 1.ª  
DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 67.**– Definiciones.

A los efectos de la presente ley, se entenderá por residuo cualquier sustancia u objeto del cual su poseedor se desprenda o del que tenga la intención u obligación de desprenderse. En todo caso, serán considerados residuos las sustancias que, incluidas en el Catálogo Europeo de Residuos (C.E.R), establecido por decisión de la Comisión de 20 de diciembre de 1993 (94/3/CE), se ajusten a la definición legal anterior.

**Artículo 68.**– Exclusiones.

A efectos de lo dispuesto en el presente capítulo, quedan excluidos, sin perjuicio de su aplicación subsidiaria como derecho supletorio en los aspectos no regulados por su legislación específica:

- a) Los residuos radiactivos.
- b) Los residuos derivados de recursos minerales y canteras.
- c) Los explosivos desclasificados.
- d) Las aguas residuales que no constituyan residuos peligrosos.
- e) Los efluentes gaseosos emitidos a la atmósfera.

**Artículo 69.**– Principios.

La política de la Comunidad Autónoma en materia de residuos se inspirará en los siguientes principios, enumerados por orden jerárquico:

- a) Prevención y minimización en origen, reduciendo la producción y nocividad.
- b) Incentivación de la reutilización, reciclado y cualesquiera otras formas de valorización y cierre de ciclos.

c) Baliozta ezin daitezkeen hondakinak egoki deuseztatzea eta egoki kudeatzeko behar diren bitartekoak ezartzea.

**70. atala.**– Hondakin-planak.

1.– Aurreko atalean adierazitako oinarriak benetan eraginkorrak izan daitezen, administrazio publikoek hondakin-planak egingo dituzte, eta bertan, besteak beste, lortu beharreko helburuen, garatu beharreko estrategien, azpiegiturak sortzearen eta finantzaketa-sistemen zehaztasunak azalduko dira.

2.– Planek espreski adieraziko dituzte lotespeneri eta mailari buruzko zehaztasunak. Baita beren iraupen eta indarraldia ere, zeina plangintzaren egonkortasun eta eraginkortasun egokia bermatzearen ziklo eta jarduera ekonomiko industrialetara moldatuko baita.

3.– Hondakin-planak egiteko, Ingurugiroako Aholku Kontseiluan ordezkaturik dauden agente eta erakundeen parte-hartzea eta elkarlana bermatuko da.

**71. atala.**– Baimena emateko berariazko erregimenak.

Araudi bidez, baimena emateko berariazko erregimenak ezarri ahal izango dira hondakinak sortzeko edota kudeatzeko jarduera desberdinentzat. Besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organok baimena emateko baldintza hauek ezar ditzake:

a) Kalteengatik erantzukizun zibileko asegurua egitea.

b) Bere jardueran ari denean egon daitezkeen erantzukizunengatik baimena ematen duen Administrazioari erantzuteko fidantza ematea.

c) Produktoreei, eta dagokionean kudeatzaileei, minimizazio-planak aplikatzea.

d) Lege honetan ezarritako irizpide eta lehentasunen arabera alternatiba tekniko eta ekonomikoak ezartzea.

2. SAILA

HIRIKO HONDAKIN SOLIDOAK

**72. atala.**– Hiriko hondakin solidoak. Ekintzak.

Hiriko hondakin solidoei dagokienez, eskudun administrazio publikoek honako helburu hauek lortzeko ekintzak egingo dituzte:

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren esparru osoan hiriko hondakin solidoak gaika biltzeko sistemak sustatzea, birziklatzeko edo balioztatzeko beste era batzuetarako aukera egon dadin.

b) Gaika biltzeko sistema ezartzen aktiboki parte hartzeko herritarrak hezi eta kontzientziatzeko kanpainak garatzea eta jendea produktuen ontziak (batez

c) Eliminación adecuada de los residuos que no puedan valorizarse e implantación de los medios necesarios para su correcta gestión.

**Artículo 70.**– Planes de residuos.

1.– Con el fin de hacer efectivos los principios contenidos en el artículo anterior, las Administraciones públicas elaborarán planes de residuos que contendrán, entre otras, especificaciones relativas a objetivos a cumplimentar, estrategias a desarrollar, creación de infraestructuras y sistemas de financiación.

2.– Los planes deberán contener pronunciamientos expresos sobre vinculación y rango, así como su duración y vigencia, que deberá acomodarse a los ciclos y actividades económicas industriales, al objeto de garantizar la deseable estabilidad y la eficacia de la planificación.

3.– La elaboración de los planes de residuos garantizará la participación y colaboración de los agentes e instituciones representados en el Consejo Asesor de Medio Ambiente.

**Artículo 71.**– Regímenes de autorización específicos.

Reglamentariamente se podrán establecer regímenes de autorización específicos para las distintas actividades de producción y/o gestión de residuos. Entre otras exigencias, el órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco podrá condicionar la autorización a:

a) La constitución de un seguro de responsabilidad civil por daños.

b) La prestación de una fianza para responder ante la Administración autorizante de posibles responsabilidades en el ejercicio de la actividad.

c) La aplicación de planes de minimización a los productores y, en su caso, a los gestores.

d) La incorporación de alternativas técnicas y económicas, con arreglo a los criterios y prioridades establecidos en la presente ley.

SECCIÓN 2.ª

RESIDUOS SÓLIDOS URBANOS

**Artículo 72.**– Residuos sólidos urbanos. Acciones.

En materia de residuos sólidos urbanos, las Administraciones públicas competentes desarrollarán acciones dirigidas a:

a) Promover la implantación en todo el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco de sistemas de recogida selectiva de residuos sólidos urbanos que posibiliten su reciclado u otras formas de valorización.

b) Desarrollar campañas de formación y concienciación ciudadana dirigidas a promover la participación activa en la implantación de la recogida selectiva



ere berriz erabiltzen edo birziklatzen zailak direnak) gutxiago erabil ditzan bultzatzea.

c) Ekiteko mekanismoak ezarri eta ontziak zein ontzi-hondakinak egoki kudeatzeko behar diren azpiegiturak sustatzea.

d) Hiriko hondakin solidoak bildu eta tratatzeko udal-zerbitzuak partzuergoan edo mankomunitatean kudeatzea sustatu eta koordinatzea.

e) Berriz erabiltzeko, hondakinak minimizatzen edo eragina murrizteko bidea ematen duten kontsumo-produktuen eta zerbitzugintza-moduen garapen teknikoari eta komertzializazioari laguntzea.

f) Materialak berreskuratzeko eta balioztatzen azpiegiturak ezartzea bultzatzea.

g) Materialak eta ontziak berriz erabiltzea sustatzea, ahal dela material edo ontzi horien jatorrizkoen produkzio-ziklo beren barruan.

h) Material birziklatuak dituzten produktuak lortzea lehenetsiko duen erosketaren publikoaren politika ezartzea.

### 73. atala.- Ingurugiro-organoaren eskumenak.

1.- Hiriko hondakin solidoen esparruan eta udalerakundeak izan daitezkeen eskumenen kalterik gabe, indarrean dagoen legeriaren arabera Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoari dagokio hiriko hondakin solidoak kudeatzeko esparru-plangintza prestatzea.

Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoaren ahalmena izango da Ontzi eta Ontzien Hondakinei buruzko apirilaren 24ko 11/1997 Legean definitutako kudeaketa-sistema integratuen arloan baimenak ematea, ikuskatzea eta zigortzea.

2.- Halaber Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiro-organoari dagozkio:

a) Ingurugiro-babeseko estandar handiak bermatuko dituzten hondakin-kudeaketako azpiegiturak kokatzeko, ezartzeko eta ustiatzeko baldintzak eta Euskal Autonomia Erkidegoko esparruko irizpide-batasuna definitzea.

b) Hondakin-kudeaketan sortzen ari diren sistemak ingurugiroaren ikuspegitik ontzat ematea.

74. atala.- Lurralde historikoetako foru-organoen eskumenak.

Hiriko hondakin solidoen arloan, lurralde historikoetako foru-organoei dagozkie ondoko eskumenak:

a) Lurralde historiko bakoitzean hiriko hondakin solidoen esparru-plangintza beren foru-planen bidez garatzekoa.

va y fomentar la disminución del uso de envases de productos, principalmente de los de difícil reutilización o reciclado.

c) Establecer los mecanismos de actuación y promover las infraestructuras necesarias para la correcta gestión de envases y residuos de envases.

d) Fomentar y coordinar la gestión consorciada o mancomunada de los servicios municipales de recogida y tratamiento de residuos sólidos urbanos.

e) Apoyar el desarrollo técnico y la comercialización de productos de consumo y formas de prestación de servicios que permitan la reutilización, minimicen los residuos generados o reduzcan su impacto.

f) Impulsar la implantación de infraestructuras de recuperación y valorización de materiales.

g) Fomentar la reutilización de materiales y de envases preferentemente dentro de los mismos ciclos productivos que los originarios.

h) Instaurar una política de compras públicas que priorice la adquisición de productos que incorporen materiales reciclados.

**Artículo 73.-** Competencias del órgano ambiental.

1.- En materia de residuos sólidos urbanos, y sin perjuicio de las competencias que puedan corresponder a los entes locales en virtud de la normativa en vigor, corresponderá al órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco la elaboración de la planificación marco de la gestión de residuos sólidos urbanos.

Se atribuye, igualmente, al órgano ambiental de la Comunidad Autónoma la autorización, inspección y sanción de los sistemas integrados de gestión definidos en la Ley 11/1997, de 24 de abril, de Envases y Residuos de Envases.

2.- Asimismo corresponderá al órgano ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco:

a) la definición de los requisitos técnicos de ubicación, implantación y explotación de infraestructuras de gestión de residuos que garanticen altos estándares de protección medioambiental y la uniformidad de criterios dentro del ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

b) la validación desde una óptica medioambiental de los sistemas emergentes de gestión de residuos.

**Artículo 74.-** Competencias de los órganos forales de los territorios históricos.

En materia de residuos sólidos urbanos corresponden a los órganos forales de los territorios históricos las siguientes competencias:

a) El desarrollo, en cada territorio histórico, de la planificación marco de gestión de residuos sólidos urbanos, a través de los correspondientes planes forales.

b) Lurralde historiko bakoitzeko esparruan udal-jarduerak koordinatzeko, arlo honetan zerbitzuak era osatuan betetzearren.

c) Hondakinak kudeatzeko udalaz gaindiko azpiegiturak bultzatzeko.

### 3. SAILA

#### HONDAKIN ARRISKUTSUAK ETA BESTE ZENBAIT MOTATAKO HONDAKINAK

**75. atala.**– Hondakin arriskutsuak eta beste zenbait motatako hondakinak. Ekintzak.

69. atalean hondakin arriskutsuei eta beste zenbait motatako hondakinei buruz izendatutako oinarriak betetzearren, eskudun administrazio publikoek ondoko helburu hauek lortzeko ekintzak egingo dituzte:

a) Baliabide naturalak era eraginkorragoan erabiltzeko teknologia garbiak sartzea bultzatzea, sortutako hondakinen kopurua eta arrisku-maila minimizatzearen.

b) Beren fabrikazio, erabilpen eta deuseztapeneko ezaugarriengatik sortutako hondakinen kantitatea eta arrisku-maila zein poluitzeko arriskua murriztuko dituzten produktuen komertzializazioan eta garapen teknikoan laguntzea.

c) Elementu arriskutsuak edo hondakin arriskutsu ugari sortzen dituzten lehengaiak eta produktu lagungarriak mailaka eragin txikiagoko beste batzuek ordezka daitezela sustatzea.

